

**NAFARROAKO GOBERNUAK PROPOSATURIKO NEURRI
FISKALEN GAINEKO ELA-REN BALORAZIOA**

2009ko urriak 19

0.- SARRERA

Oraingo egoera ekonomikoak argi uzten ditu egungo eredu fiskalaren gabeziak. Errenta altuenen, kapitalaren errenten eta enpresarien neurrira eginiko eredu fiskal bat da.

Ekonomia hazkunde garaian, sektore pribatua ere handituz joan da, eta behin eta berriz egindako fiskaltasun eraldaketek, errenta altuenen eta kapitalaren errenten presio fiskala txikiagotzeko helburuz egin dira. Honek arlo publikoaren pisua txikiagotu du, pribatuaren mesedetan.

Egoera honetan, Nafarroako Gobernuak krisi hau sorrarazi duten arrazoietan sakontzen jarraitzen du, orain proposaturiko neurri fiskal hauek, lehengoan bidean bai doaz. Argi geratzen da, Nafarroako Gobernuak krisitik ateratzeko duen errezeta, krisira bidali gintuen errezeta bera dela.

1.- NAFARROAKO GOBERNUAREN NEURRI FISKALEN AZTERKETA

Miguel Sanzek Nafarroako egoeraren inguruko eztabaidan proposaturiko 14 neurri fiskaletatik azpimarragarrienak, ondorengoak dira:

- 1- 2010ean soldatei PFEZaren erretentzioak ez igotzea- Neurri honek ez die eragiten ordaindu beharreko zergei, erretentzioak konturako ordainketak dira, eta erretentzioak txikiagoak badira, errentaren aitorpena egiterako garaian ordaindu beharko da.
- 2- 440 eurotako kenkaria, urtean 11.276 euro baino errenta txikiagoak dituztenei soilik ezarriko zaie. Kantitate hau eta 18.085 eurotako errenta artean dutenek, 440 eta 0 euro arteko kenkaria izango dute.
- 3- Aurrezpenaren eta kapitalaren inbertsioaren etekinen erretentzioak ez igotzea. Neurri honek ere ez du inolako aldaketa fiskalik suposatzen, lehendabizikoaren moduan.
- 4- Kapitalaren aurrezpenaren gaineko zerga ez igotzea 6.000 euro baino gutxiagoko etekinei.
- 5- Kapitalaren aurrezpenaren gaineko zerga %18tik %20ra igo, 6.000 euro baino etekin handiagoei.
- 6- 3 puntu txikiagotu Sozietateen gaineko Zerga urtean milioi 1 baino gutxiago fakturatzen duten enpresei (hauen tasa %23tik %20era pasako da).
- 7- Puntu 1 txikiagotu Sozietateen gaineko Zerga urtean milioi 1 eta 9 milioi euro artean fakturatzen duten enpresei (hauen tasa %28tik %27ra pasako da).

2.- ELA-ren BALORAZIOA

ELA-k Sanzen Gobernuak proposaturiko aldaketak gaitzesten ditu, ondorengo arrazoiengatik:

1. Eraldaketa atzerakoia da

- Beren osotasunean, aldaketa hauek enpresaren eta kapitalaren errentei presio fiskala jaistea suposatzen dute. Nabarmena da, berriro ere, Sozietateen gaineko Zergaren merkatzea proposatzen dela.
- 440 eurotako kenkaria gutxitu edota kendu egingo da 11.276 euro baino gehiago irabazten dituztenentzat, bereziki diruduna ez den langileriaren zati garrantzitsu bati eragiten dion neurria delarik.
- Kapitalaren errentek onartezina den abantaila mantentzen dute PFEZan, gehienez ere, %20ean ordainduko baitute zerga.
- Diru bilketa txikiagoa izatea suposatzen du, egungo beharren aurka doazen neurriak dira, beraz.

2. Zapaterok hartutako neurri fiskalen bidetik jotzen da

- Proposaturiko aldaketak, Espainiako Gobernuak adierazitakoen bidetik doaz, azaleko ezberdintasun batzuekin bada ere (bai PFEZan, nola Sozietateen gaineko Zergan).
- ELA-ren ustetan, Nafarroako ekonomia hitzarmenak duen arautzeko gaitasuna erabili behar da sistema fiskal propio eta ezberdindu bat izateko. Madrilen zerga batzuk aldatuko direla eta, hemen ere aldatzeak, mesede gutxi egiten dio ekonomia hitzarmenak duen arautzeko ahalmenari.

3. ELA-ren PROPOSAMENTAK

NAFARROAKO GOBERNUAK KRISITIK ATERATZEKO POLITIKEI UKO EGIN DIE

Miguel Sanzek proposaturiko neurri fiskalen aurrean, ELA-k ondorengoa adierazten du:

1. Proposaturiko neurri fiskalak ez dira Nafarroan behar ditugunak. Sistema fiskal solidarioagoa behar da, eta diru bilketa Europako batz bestekoarekin bateratu behar da (1.340 milioi gehiago beharko lirateke urtean), baliabide hauek gastu sozialera bideratzeko.

2. ELA-rentzat, eraldatze fiskal hau, lanekoak ez diren errenta guztiak preskripzio garaia baino lehen ikuskaraztean eta errenta altuei eta kapitalaren errentei zergak igotzean oinarritu beharko litzateke. Zehazki, ELA-k eskatzen duena, kapitalaren errententzako eskala berezia kentzea, eta gehieneko tasa %53ra igotzea da, duela 10 urte PFEZan zegoen bezala; tasa %35era igo eta Sozietateen gaineko Zergaren kenketak ezabatzea; Ondarearen gaineko Zerga berriz ere jartzea; ondasun handiak dituztenek, zerga gutxi ordaintzea baliarazten dieten ingeniarietza fiskala ezabatzea.

